




# Joko politikoa erabat zabalik da

Ezker abertzalearen ilegalizazioak instituzioen osaketa desitxuratu du, baina hauteskondeetako emaitzak errealitate politikoaren argazki argia utzi du. Orain artekoa baino argazki zehatzagoa da, alderdiak euren artean gehiago negoziatzera behartuko dituen, joko politiko zabalagoa eskainiko duena, bake prozesuari aukera berri bat zabal diezaiokeena.

XABIER LETONA





**SOZIOLOGIKOKI** aztertuta, Euskal Herriko emaitza orokorrek ohiko mapa politiko aberatsa erakusten dute, nahiz eta, ezker abertzalearen zati handienaren legez kanporatzearekin, pluraltasun hori ez den indar guztiarekin ordezkaturako erakundeetan. Eta hala ere, instituzioetako osaketa eta agintaritza berbanatu egingo da. Oro har, gehiengo absolutu askoren desagertzeak monopolioen amaiera eta joko politiko aberatsagoa ekarriko ditu, foru zein udal erakundeetan. Datozen egunetarako, halaber, erakundeak osatu eta ANVren legez kanpoko botoak eserleku ez bihurtzearen ondorioz, leku askotan tentsio handiko uneak biziko dira seguruenik.

UPNk Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala bere eskuetan izan ditzake berriz ere –Iruñean seguru–, baina bietan galduko du gehiengo osoa eta horrek bere jauntxokeria baretzera behartzen du. Bizkaian eta Gipuzkoan foru erakundeak Jaurlaritza osatzen duen hirukoa gehi Aralarren menpe gera daitezke, eta Araban jeltzaleek sozialistak boterera aipatuko dituzte seguruenik, PP nagusitu bada ere.

Beste itun aukera motarik ere bada EAEko kasuan bederen, EAJk eta PSEk gehiengoa osatzea eta nagusitasun hori ordezkatzeko ahalik eta erakunde gehienetan. EAJko zuzendaritzan norabide horretan abiatzeko joera zantzuak ikusi dira azken urteetan, baina oraingoz Jaurlaritzako hirukoaren formula nagusitu da eta aurrera begira ere joera hori –gehi Aralar– berretsi daitekeela dirudi, areago kontuan izanda irailean EAJren zuzendaritza berriaren barne hautaketa hasiko dela eta itxura guztien arabera Imaz-Egibar lehia errepikatuko denean. Josu Jon Imazek erakutsi du PSOErekin gai askotan ulertzeko duen joera, baina molde horren apustu argiak, alderdiaren

barne lehian irudi soberanista islatzen duen Joseba Egibarren lerroa indartzea ekar dezake; horrexegatik, EAJren barne orekak bultzatuta, badirudi jeltzaleek Jaurlaritzako formula eraman-go dutela politika orokorrera.

### Nafarroa, aldaketa aukera bai, baina ezin

UPNk gehiengo osoak galdu ditu Nafarroako Legebiltzarrean eta Iruñeko udalean, hori da foru komunitateari buruzko daturik esanguratsuenaren. Eremu abertzalean Nafarroa Bairen igoera historikoak eta EAE-ANVren –boto balio-gabea kontatuz– igoera esanguratsua nabarmentzen dira. UPNk botoari eutsi egin dio eta CDNk ia erdia galdu du UPNren mesedetan.

PSNk apur bat igo du eta Ezker Batuak erdia galdu du, seguruenik NaBairen tirakadagatik.

Iruñeko udalean UPNk 13 eserleku lortu ditu (27tik) eta NaBairen (8), PSNren (4) eta ANVren (2) artean 14 dituzte. Gaur gaurkoz gehiengo gauzaezina du hirukote honek, udal gobernu berriaren giltza ANV delako eta, gaur gaurkoz, PSNk ez duelako ezker abertzaleko

indarrarekin inongo itunik gauzatuko.

Nafarroako Legebiltzarrean egoera bestelakoa da, PSN, NaBai eta Ezker Batuak koalizioa osa dezakete 26 eserlekurekin gehiengo osoa lortuz, UPN-CDNk 24 eserleku baitituzte. PSNk hemen ez du ANVren aitzakiarik, baina hala ere oso gaitza ikusten da gobernu alternatiboa gidatzeko hautua egitea, batez ere Espainian PSOEk PPrekin duen lehia zorrotzagatik. Zapateroren aurkako kanpaina etengabeak emaitza onak eman dizkio PPri eta ez dirudi Zapaterok ausardia eta arriskuaren hautua egingo duenik Espainiako hauteskunde orokor-rrak arteko urtebeteko epean.

Gaitza ikusten da PSNk gobernu  
alternatiboa gidatzeko hautua  
egitea, batez ere Espainian  
PSOEk PPrekin duen lehia  
zorrotzagatik

### Bake prozesua garaile Euskal Herrian

Bake prozesua nabarmen garaile atera da Euskal Herrian, bere aktore nagusienen –ezker abertzalea eta PSOE– emaitza onek adierazten duten moduan. Irudi kontraesankorra eskainiz, ilegalizazioa bultzatu duenak eta ilegalizatuak, biek lortu dituzte emaitza oso esanguratsua. PSE-ren kasuan, 10.000 boto hobetuz eta ANV ia 190.000 botori iritsiz, hori kontuan izanik abstentzioa 2003an baino handiagoa izan dela, batez ere Gipuzkoan. Espainian ez bezala, euskal herritarrek PP gogor zigortu dute eta PSOERI sostengua eman.

Hauteskunde garaia non hasi eta non bukatzen den zehaztea gero eta zailagoa denean, argi dago ez dela bake prozesuaren egoeraren argazkia egiteko sasoirik onena. Giroa baretu behar da, urak bere ubidea hartu behar du eta gero diagnosis egin. Baina tarterik ez dago ia, alderdi nagusiak, batez ere PP eta PSOE jadanik datorren urteko Espainiako hauteskunde orokorretara begira daudelako.

Bake prozesuaren egoera ez da ona, edo hobeto esanda, txarra dela irudikatu da. Besteak beste, Gara-k PSOERen eta Batasunaren artean izandako bileren kontaketa egin izanak, prozesuaren etapa bat joan dela adierazten du, eta prozesua berregitekotan beste era batera izango dela. Orain zein norabide har

ESTATUA		2007	2003	
	7.914.084	%35,6	7.875.761	%34,29
	7.758.093	%34,9	7.999.178	%34,83
	1.216.443	%5,47	1.394.871	%6,07

Bake prozesua nabarmen garaile atera da Euskal Herrian, bere aktore nagusienen –ezker abertzalea eta PSOE– emaitza onek adierazten duten moduan.

dezakeen, aldiz, Zapateroren Gobernuak erabaki beharko du. Euskal Herriko herritarrek nahi dutena argi islatu da, Espainian ere bere jarraitzaileek babestu egin dute PSOE, Nafarroako egoera ere prozesua bultzatzeko aproposa da eta ENA-Men adar politikoena indartuta geratu bide da, berriz ere garaipena su-eten garaian lortu baitu.

Hori guztia alde du Zapaterok. Aurka duena PP da eta oso indar handiz gainera, hauteskundeek berretsi duten moduan. Erabakia, beraz, ez da samurra izango eta orain arteko sozialisten zuhurtasuna ikusita, denak adierazten du sozialistek ez dutela mugimendu gehiegirik egingo datorren urteko hauteskundeetan zer gertatzen den ikusi arte.

### Koaliziorik gabe EAJk eta EAK behera

Batera joan ziren azken boladako datuekin erkatuz, indar galera handia izan dute EAJk eta EAK. Itunen bidez gobernagarritasunari eutsi ahal izango diote leku askotan, baina argi dago elkarrekin emaitza hobetoak dituztela. Jakina, egoera horretan, epe luzera gal-tzaile ateratzeko arriskua EArena da. Bestela ere, dena den, eta boto kopuru esanguratsua lortu arren –70.000 inguru–, EAK bere beheranzko apurkako joerari eutsi dio. Hauteskundeak ez dira oso konparagarriak, baina errefentzi bat behintzat



bada: 2004ko Espainiako hauteskunde orokorretan 80.000 boto inguru lortu zituzten.


Kolpe latzena Gipuzkoan jaso du koalizio ohiak, eta batez ere EAJk, emaitza historikoa lortuz PSE lehen indar gisa agertu baita. EAJren kasuan, barne borrokek eta, batez ere, Ogasunaren inguruan agertutako irregularitasunek ez zioten mesede handirik egingo.

EB eta Aralarren arteko koalizioa ere berrikuntza zen hauteskunde hauetan eta bitxia bada ere, botoetan behera egin dute baina zinegotzietan gora. Instituzioetan ordezkaritza izateko beharrezkoa den %5 gainditzeko aukera gauzatu dute bi indarren botuak batuz, eta alde horretatik erabakigarriak izan daitezke leku askotan, adibidez Bilboko Udalean eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Hala ere, botoetan behera egin izana kezkarria da koalizioaren etorkizunerako.

#### Alderdi txikiagoen gorabeherak


Nafarroan UPNk eutsi dion moduan, EAEn PPK boto asko galdu ditu, seguruenik PSEren mesedetan. Fenomeno tipikoa izaten da, Espainiako Gobernuan dagoenak boto gehiago eskuratzeko. Nafarroako eskuinaren adar txikia den CDNri, aurreikusitakoa gertatu zaio, eta etorkizunik gabe geratu da ia. Ion Erroren Ezker Batuari, aldiz, ez zitzaion halakorik aurreikusten, eta oso posible da bere botoemaileen gehiengo NaBaira joan izana eta zatiren bat agian PSNra; Nafarroako Gobernuan ordezkaritza erdira jaitea eta Iruñeko udalean 3 zinegotzitik Ora igarotzea danbateko handia da. Euren politika sakon berplanteatzeko modukoa seguruenik.

Bukatu da txango honen lehen parte, bigarrena udal osaketarena da eta hori laburragoa da baina -ilegalizazioa mediotentsio handikoa izango dela aurreikusten da. Aldi berean, aukera berri asko zabaldu dira eta orain errealitatean duten eragina ikusi beharko da. Urte bete geratzen da datozen Espainiako hauteskunde orokorrak arte. ■


06  
07

## BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendari Titular eta Artistikoa, Juanjo Mena



# EKAINA 7-8


Amaierako Kontzertua

M. Ravel: Pavane pour  
une infante défunte  
H. Berlioz: La mort de Cléopatra  
M. Ravel: Daphnis et Chloe, ballet

Jane Irwin, mezzosopranoa  
Bilboko Koral Elkarte  
Sociedad Coral de Bilbao  
(Gorka Sierra, zuzendaria)

Juanjo Mena, zuzendaria

# Amaierako Kontzertua, Daphnis et Chloe

Informazioa		Babeslea
<b>ordutegia</b> 20:00 T. 94 40 35 205 www.bilbaoorkestra.com	<b>lekua</b> Palacio Euskalduna Jauregia	<b>prezioak</b> 24,00 € 12,00 € gazteak (-27) 7,50 € 4,00 €
		BBK26  sarrak 2€ eta ziborrak 30€